



Andres Urrutia
Euskaltzainburua
Presidente de Euskaltzaindia

Etxepare: Hizkuntza, herria eta poesia

Etxepare: Lengua, pueblo y poesía

ASPALDIKOAK DIRA Eusko Legebiltza-
 Arraren eta Euskaltzaindiaren arteko
 harremanak. Horiek ekarri dituzte, besteak
 beste, halako emaitza nabarmenak, euska-
 raren eta euskal kulturaren mesedetan guz-
 tiz onuragarriak izan direnak.

Egia esan, oraingo honetan, gure bi era-
 kundeok, Gernikako Estatutuan partaide
 izan eta batera jarri dira euskal gizarteari
 eskaintzeko euskararen lehen lekuko in-
 primatua. Egun hizkuntza berezkoa eta
 ofiziala dugun euskarak orri horietan izan
 zuen lehen agerpen inprimatua.

Hasiera-hasierako lekuko hura Etxepare-
 ren eskutik iritsi zitzaigun. Etxepare apeza,
 olerkaria eta eragilea, euskal kulturaren bar-
 nean sona handia eskuratu duena. Haren
 bertsoak, haren liburua, haren biografia, be-
 gien bistakoak zaizkigu argitaraldi honetan,

HACE TIEMPO que las relaciones entre
 el Parlamento Vasco y la Real Aca-
 demia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia
 son una realidad que ha traído, gracias a esta
 cooperación institucional, una serie de fru-
 tos que han redundado en beneficio de la
 lengua y la cultura vascas.

Lo cierto es que en esta ocasión ambas
 instituciones, presentes en el Estatuto de
 Gernika, han sabido aunar esfuerzos para
 ofrecer a la sociedad vasca el primer testigo
 impreso del euskera; la lengua propia de los
 vascos y oficial hoy junto con la lengua
 castellana en el ámbito de la Comunidad
 Autónoma Vasca.

Etxepare fue el primer autor del que tene-
 mos constancia impresa en euskera; fue, ade-
 más, un poeta, y no precisamente de los que
 no dejan huella. Sus versos, su libro, su bio-

noren eta Xabier Kintana jaunaren eskutik, berori dela Euskaltzaindiaren idazkaria. Berak eskaini digu halako sarrera zehatza eta esanguratsua, arreta handiz moldatua. Horra, bada, bestelako ekarpen egokia, Etxepareri buruzko bibliografia zabala areagotzen duena, bazterrean utzi gabe, era berean, bibliografia zerrenda horretan aspalditik dauden euskaltzain askoren emaitzak.

Bada, alabaina, beste ezaugarri garrantzitsua argitaraldi honetan, barne-barnetik hartzen baitu horrek aribide ezaguna, alegia, euskal letretan ezinbesteko den testu hau, munduko beste zenbait hizkuntzatan ere argitaratzea, hizkuntza horiek baitira euskaldunok beste kultura batzuen berri izan dezaten tresnak eta, aldiz, beste herritar batzuek ere gurea ezagutu dezaten, mundu orokor eta orotariko honen barruan.

Gailurrean dago, beraz, harako ibilbidea, Eusko Legebiltzarrak ondu duena bere 30. urteurrenean. Hartara, *Euskara, jalgi hadi plazara!* erakusketan Euskaltzaindia bidaide izan du, eta batera jardun dute bi-biek ere, gerora, obra hau gure eskuetan jartzeko. Azpimarratzekoak dira horretan bi ahalegin sutsu, bateko, Arantza Quiroga andrearena, bera dela Eusko Legebiltzarraren burua, eta besteko, Xabier Kintana jaunarena, berori dela, esan legez, Euskaltzaindiaren idazkaria.

Hona, beraz, betiko *Linguae Vasconum Primitiae*, eraberritua eta hizkuntza-jantzi desberdinekin egokitua. Betor, bide beretik, Etxepareren behinolako mezua, oraingoan mundura doana, munduko hizkuntza desberdinetan: *Euskara, jalgi hadi plazara!*

grafia, nos aparecen en esta edición retratados por la docta mano del secretario de Euskaltzaindia, D. Xabier Kintana, en una introducción precisa y cuidada al mínimo detalle. He ahí una aportación importante al acervo bibliográfico que ya existe sobre Etxepare y en el que son partícipes otros miembros de la Academia de Euskaltzaindia.

Existe, sin embargo, otra característica importante en esta edición, que retoma la línea de publicar este texto, capital en las letras vascas, en varias de las lenguas mundiales que hoy permiten a los vascos el acceso a otras culturas, en este mundo global y globalizado.

Se culmina así un proceso que se ha iniciado con la celebración del 30 aniversario del Parlamento Vasco y una exposición en torno a los clásicos vascos, realizada con la colaboración de Euskaltzaindia, Real Academia de la Lengua Vasca. Esta exposición ha puesto las bases para reforzar una colaboración institucional que hoy nos trae, gracias a los desvelos de la presidenta del Parlamento, Doña Arantza Quiroga, y del secretario de Euskaltzaindia, D. Xabier Kintana, la magnífica realidad de esta nueva edición del *Linguae Vasconum Primitiae* de Etxepare y el cumplimiento, con su texto en las diversas lenguas del mundo, de aquel mensaje primigenio de la literatura vasca: *Euskara, jalgi hadi plazara! Euskera, ¡sal a la plaza!*